

KLIMAREN ETA ENERGIA JASANGARRIAREN ALDEKO AZPEITIKO PLANA (2025-2040)



ESKU61a2fdd1-6ff8-43e6-a441-284c47d2bbf5

Proiektuaren izena:	Klimaren eta energia jasangarriaren aldeko Azpeitiko plana.
Bezeroa:	Azpeitiko Udala
Proiektuaren idazlea:	IZADI 21 (Inguru 21, S.L.), LAIA Kooperatiba Elkarte Txikiarekin lankidetzan.
Dokumentuaren data:	2025/12/19

TESTUINGURUA:

Azpeitiko Udala Alkateen Itunerantz Zuzenduz ekimenera batu zen 2013ko ekainak 18an Energiaren Euskal Agentziarekin (EVE) sinatu zuen elkarlanerako hitzarmenaren bidez.

Ekimenaren helburuetako bat 2020rango **Udalerriko Energia Plan (EIEP)** bat egitea zen, Europar Batasunak hartutako 20/20/20 konpromezuarekin betetzea ahalbidetuko zuena. Bertan 2020a baino lehenago bete beharreko hiru helburu jasotzen dira: CO₂ emisioak % 20 murriztea, % 20 handitzea energia aurrezpenak eta beste % 20 berriztagarrien erabilera, udalerriko energia kontsumoarekiko. Hau horrela izan arren, plan hau Udalaren ardura diren instalaziotara zuzendu zen. Berotegi efektuko gasen inbentario bat oinarri hartuta, ekintza batzuk proposatu ziren planean, 2009an ezarritako erreferentzia urtekoekiko % 20 murriztea ekarriko zutenak.

Azpeitiko EIEPe hiru sektore hauekiko neurriak jaso ziren: eraikin publikoak, argiteria publikoa eta Udaleko ibilgailu-flota. Berriztagarrien aprobetxamendura zuzendutako neurriak ere gehitzen ziren, autokontsumora zuzenduak argindarraren kasuan eta berogailu/klimatizazio sistemetara energia termikoarenean.

2013-2025 aldirako, kontsumoaren murrizketa, energia efizientiaren hobekuntza eta energia berriztagarrietan oinarritutako energia modelo batera iristea dira indarrean dagoen plan estrategikoaren helburuak, eta beregan hartzen ditu 2013-2025 aldian energiaren eta berotegi efektuko gasen (aurrerantzean, BEG) emisioen inguruan egindako ekintza guztiak. Bertan udal instalazioetara zuzendutako bi programa aurkitzen dira, eta hirugarren batek biltzen ditu udalerriko beste sektoreetara zuzendutakoak.

Mugikortasunera, hondakinen kudeaketara eta ingurumenaren babesera zuzendutako neurriak **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoan** jaso ziren. Plan honetan, udala ez den hirugarrenen menpe zeuden ekintzak (herriko gainerako sektoreak, alegia) ekidin eta baliabideak Udalak zuzenean burutu zitzakeen ekimenera bideratzea izan zen, ezarritako helburuak beteko zirela ziurtatuz.

Bestetik, Udalak **2022ko azaroan Azpeitia udalerriko eta udalaren energia-balantzearen eta inbentarioen emaitzak** txosten batean jaso zituen, 2021 urte bitarteko datuekin. Era berean, BEG emisioen inbentarioa eta bilakaera aztertzen da klima- eta energia-planen esparruko sektoreen arabera, urte aldi bererako. Era berean, **2022ko azaroan Udalak Energia arloan Jarduteko Plan Orokorra** onartu eta abiarazi zuen, **4/2019 Legeak ezarritako udal mailako obligazioak betetzera zuzendutako bide-orri gisa**. Bide-orri honen indarraldia 2030 urtera bitartekoa da eta oinarri-urte moduan 2013 urtea aintzat hartu zuen Udalak (beraz, Udalak 2013ko datuak aintzat hartzen ditu 2030 urtera begira **4/2019 Legeak ezarritako helburu kuantitatiboak lortzeko bidean zein joera jarraitzen ari den aztertu ahal izateko**).

Bukatzeko, 2025ean **Azpeitiko Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko plana (KETP)** prestatzeko oinarrietako bat izan da azken txosten hau. Azterketa honetan erabilitako iturriak, alde batetik, 2013 urteaz geroztik energia kontsumo datuak jasotzen dituen SIE Energia Informazioko Sistema (SIE) izan da, eta bestetik, Udalsarea 2030 sareak emandako datuetatik abiatuta, Udalak azkeneko urteotan kalkulatu dituen BEGen inbentarioetako datuak.

Ekintza plan berri honek dakarren berrikuntza nagusia Azpeitiko EIEPari klimaren aldagaia aintzat hartuta, klima-aldaketara egokitzeko jarduera barne hartzearena izan da. Izan ere, **Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak** 18. artikuluan 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, beren eskumenen esparruan, klima- eta energia-planak onartu beharko dituztela ezartzen du; plan horietan, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa jaso beharko dutela jasotzen da, eta klimaren aldagaia txertatu beharko dutela, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegitik, lege honen xede eta edukiarekin lerrotatuta.

Ekintza-planaren diseinu faserako, besteak beste, **Euskadiko klima eta energiaren tokiko planak egiteko gida (Ihobe)** erabili da. Lehen pausua **Klima eta Energiari buruzko diagnostikoa** idaztea izan da eta bertan bi atal nagusi bereizi dira, arintzea eta egokitzea. Atal bakoitzean honakoak jaso dira:

ARINTZEA:

- Udalerrian dauden sektore nagusien energia-kontsumoaren azterketa
- Argindarraren kontsumoen bilakaera sektoreka eta orokorrean
- Erregaien kontsumoen bilakaera sektoreka eta orokorrean
- Energiaren ekoizpena udalerrri mailan eta azken urteetako bilakaera (udalerrri mailan ekoiztiko energia berriztagarrien bilakaera)
- Udalaren azken urteotako energia-ibilbidea (jasangarritasun energetikoa eta klimaren babesa udal politiketan nola txertatu izan den azken urteotan –hau da, udal jarduerari lotutako energia-kontsumoen azterlanik ez da egingo udalak hori udal barruko energia plana landu zuenean osatu zuelako-).
- Berotegi Eftukoko Gasen isurpenen eboluzioa sektoreka eta orokorrean
- Azpeitiko Udalaren azken urteotako karbono-aztarnaren kalkulua

EGOKITZEA

- Herriko klimaren joera historikoak eta klima-proiekzioak
- Klima-aldaketaren aurreko urrakortasuna eta arriskuaren ebaluazioa

Diagnostikoa, Udalak indarrean dituen bestelako planak ere aztertu dira; hala nola: “Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa”, “Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana” eta “Energia arloan Jarduteko Plan Orokorra”.

Horrez gain, eta klima-arintzeari eta egokitzeari buruz eskuragarri dauden bestelako gida interesgarriak eta baliabideak ere erabili dira, besteak beste hauek:

- lhobek erakunde publikoei eta enpresei eskainitako ekintza klimatikoa bultzatzeko tresnak eta gainerako baliabideak (klima eszenatokiak, klima-aldaketari buruzko tresnak ondare naturalean, Berotegi Eftuko Gasen udal inbentarioa, udalaren karbono aztarnaren kalkulurako tresna, Life Urban Klima proiekturik eratorritako baliabideak, etab.)
- Naturklima fundazioaren txostenak (Klima-aldaketaren Gipuzkoako behatokiaren azterlanak).
- Udalak eta Iraurgi Berritzenek energiaren eta klima-aldaketaren gaietan azken urteetan landutako azterlan edo ikerketa nagusiak eta haien ondorioak.

Honela, plan hau **helburu hauekin** diseinatu da:

- Ekintza-planak 2030erako ezarritako helburuetatik haratago joan ahal izateko ekintzak ezarriko ditu, bere lurralde-eremuko CO₂ emisioak gutxienez % 40 murriztuz, adosten den oinarri-urteari dagokionez, eta klima-aldaketaren arintzea eta egokitzapena bultzatzeko ikuspegi komun bat hartzeko.
- Udalari Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea eta Trantsizio Energetikoa eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legea betetzen laguntzea, herriko sektore ezberdinei begira eta beti ere udal eskumenen mugak aintzat hartuz.
- Udalerriko gobernantza klimatikoaren oinarriak ezartzea (klimaren aldeko maila anitzeko gobernantza).
- Eskualdeko klima eta energia planarekin ere koordinazioa sustatzea, udala eta Iraurgi Berritzenekin (eskualdeko energia mahaiaren bidez, esaterako).
- Erronka klimatikoa elkarre-sarearen, hezkuntza-komunitatearen, enpresa-sektoreen eta, oro har, herritar guztien artean sozializatzea.

EKINTZA-PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JARDUKETA-PROGRAMAK ETA HORIEK LORTZERA ZUZENDUTAKO EKINTZAK:

Ekintzen lehentasun mailak zehaztu dira: Altua, Ertaina, Baxua

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

1.1 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK

- 1.1.1 Udal kiroldagian energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien ezarpenerako neurriak hartzen jarraitu (Altua).

- 1.1.2 Igerilekuan energia eraginkortasunean neurriak indartzea eta pausoak ematen jarraitzea (Altua).
- 1.1.3 Udaletxeko energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien ezarpenerako neurriak hartzen jarraitu (Ertaina).
- 1.1.4 Karmelo Etxegarai HH ikastolan, berokuntza, klimatizazioa eta energia berriztagarriak ezartzeko azterketa egin eta neurriak pixkanaka aurrera eramatea (Altua).

1.2 PROGRAMA: ARGITERIA PUBLIKOA

- 1.2.1 Argiteria publikoko kuadroak eta luminariak pixkanaka aldatzen jarraitu, guztiak energia eraginkortasun altukoak izan arte (Altua).

1.3 PROGRAMA: UDAL IBILGAILUAK

- 1.3.1 Udal langileek lan orduetan egiten dituzten herri barruko desplazamenduetan bizikleta sustatzeko neurriak ezartzea (Baxua).
- 1.3.2 Automobil-parkea pixkanaka berritzea, erregai alternatiboak txertatuz (Ertaina).

1.4 PROGRAMA: AZTERKETA ETA PLANGINTZA MAILAKOAK

- 1.4.1 Eraikinen eta argiteria publikoaren auditoretzen eguneraketak egin (Ertaina).
- 1.4.2 Udal eraikinen ziurtagiri energetikoetan jasotako neurriak progresiboki ezartzeko plangintza bat lantzea, 2030 urterako hainbat eraikinen kalifikazio energetikoa hobetzea lortzeko (Ertaina).

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDAL EKIPAMENDUETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENAREN AREAGOTZEA

2.1 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK

- 2.1.1 Energia berriztagarrien potentzialtasun azterketa berrikusi eta bideragarriak diren instalazioak egiteko plangintza definitu, indarrean dagoen legediak ezarritako helburuak betetzeko (tokiko administrazioaren kontsumoaren % 32ko edo gehiago ekoizpen berriztagarria izateko) (Altua).
- 2.1.2 Udalerriko ikastetxeetan eguzki-plaka fotovoltaikoak ezartzeko dagoen potentziala aztertu eta bideragarria den kasuetan instalazioak ezarri. (Ertaina).

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA

3.1 PROGRAMA: ETXEBIZITZAK

- 3.1.1. Herritarrei begirako sustapen neurriak aztertzea, aldiro berrikustea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, herritarrekin elkarlanean (Baxua).
- 3.1.2. Herritarren energia berriztagarrien komunitateak sustatzen jarraitzea, herritarren eta merkataritza nahiz ostalaritza enpresa txikien arteko komunitateak ahalduntzeko (Baxua)

3.2 PROGRAMA: EKONOMIA JARDUERAK

- 3.2.1. Herriko sektore ekonomiko ezberdinetan energia-eraginkortasuna eta gertu sortutako berriztagarrien ezarpena bultzatzen jarraitzeko neurriak eragileekin batera adostea (Baxua)

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA.

4.1 PROGRAMA: MUGIKORTASUNA

- 4.1.1. Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planean jasotzen diren ekintzak aurrera eramanean, garraioaren ondoriozko energia kontsumoa eta BEG isuriak gutxitzeko asmoz (Ertaina).
- 4.1.2. Urola Erdiko Mugikortasun Plana indarrean jartzean bere edukia aztertu eta udalak parte hartze aktiboa izatea, eskualde mailako joan-etorrietan aukera jasangarriak ezarri ahal izateko (Ertaina).

4.2 PROGRAMA: EKONOMIA ZIRKULARRA

- 4.2.1. Udalerrian eta udalean bertan erabilera bakarreko plastikoak murriztera bideratutako lan-ildo bat abiaraztea. (Baxua)
- 4.2.2. Erosketak eta kontsumo arduratsua eta tokioa sustatzeko ekintzekin jarraitzea (Ertaina).
- 4.2.3. Konponketa eta berrerabilpena sustatzeko ekintzei jarraipena ematea, tokiko elkarte eta eragileekin lankidetzan (Baxua).
- 4.2.4. Elikagaiak alferrik galtzearen arazoari heltzea, intzidentzia aztertuz eta ibilbide-orri bat ezarri esparru hori udalerriko hainbat sektoreekin lantzeko (Baxua).
- 4.2.5. Hondakinen sorkuntzaren araberako zabor-tasa aldakorraren alde lan egitea (Altua)

- 4.2.6. Amiantoaren errolda egin eta erabilera publikoa duten eraikinei begirako ezabaketa-plana martxan jarri (Ertaina)
- 4.2.7. Udalak kontratatzen dituen zerbitzu eta produktuetan ingurumen ikuspuntua ezartzen dela bermatzea, udalaren eta bere hornitzaileen karbono-aztarna murrizteko (Altua).

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA

5.1. PROGRAMA: HIRI-PLANGINTZA (7/2021 eta 1/2024 legeak betetzea)

- 5.1.1. Hirigintza-plangintzaren diseinuan eta haren garapenetan klima-aldagaia barneratzeko urratsak ematea (Baxua).
- 5.1.2. Udalerriko azpiegitura kritikok klima-mehatxuen aurrean duten kalteberatasuna eta elkarren mendekotasuna aztertzea eta klima-aldaketatik eratorritako arriskuak gutxitzea zein horiek murriztera zuzendutako neurriak jasoko dituen plana landu (Altua).
- 5.1.3. Ibaiertzeko eremuetan eta malda altuko ibarretan (errekastoak) gerta litezkeen uholde/lubizi bortitzen eragina aztertzea eta kalteberak diren eremuetan babes-elementuak sartzea (Ertaina).
- 5.1.4. Bero-boladen aurrean biztanleria kalteberarentzat baliabide gisa jardun dezaketen babesleku klimatikoak identifikatu, egokitu edo prestatzeko orientabide orokorrak eskaini (Ertaina).
- 5.1.5. Klima-arriskuak gizarte-zerbitzuek bultzatutako politiketan txertatzea, biztanleria ahulenari arreta berezia eskainiz (Baxua).

5.2. PROGRAMA: UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.

- 5.2.1. Hirigunea berdatzea sustatzea, naturan oinarritutako konponbideak sustatuz, kostu txikiko neurriak, zeinen multifuntzionaltasuna eta baterako onurak frogatuta baitaude (Ertaina).
- 5.2.2. Klima-aldaketara egokitzeko irizpideak pixkanaka txertatzea udal-plangintzan eta, zeharka, beste politika sektorial batzuetan (Baxua).
- 5.2.3. Udalerriko natura-guneen babesa, herri-bideen mantenua eta landatzen diren espezieen kontrola hobetzea (Baxua).
- 5.2.4. Udalerriko basoen kudeaketa jasangarria sustatzea (Ertaina).
- 5.2.5. Balio natural handiko eremuetatik ibilbide didaktikoak sustatzea (Baxua).
- 5.2.6. Hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa hobetzeko lanekin jarraitzea eszenatokiak aintzat hartuta (Ertaina).
- 5.2.7. Lorezaintzako praktikak klima-testuinguru berrira egokitzea (Baxua).

- 5.2.8. Lehorreko ekosistemen arteko konektibitate ekologikoa erraztu dezaketen proiektuak abiarazi eta horiek lagundu (Baxua).
- 5.2.9. Natura 2000 sarearen baitan kokatuta dagoen Izarraitz mendiaren ezaugarriak eta babesa mantendu (Baxua).
- 5.2.10. Industria guneak naturalizatzeko edo berdatzeko aukeren inguruko azterketa bat aurrera eraman. (Baxua)
- 5.2.11. Udalerriko lehen sektoreak klima-aldaketaren eraginez izan ditzakeen kalteak kontuan hartuz (lehorteak, uraren eskuragarritasuna, izurriteak, etab.), sektorea babesteko neurriak ezartzea, besteak beste, Urkomerekin elkarlanean. (Baxua)

6. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEN UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA

6.1 PROGRAMA: UDAL BARRUKO EGITURA SENDOTU

- 6.1.1. Klima-aldaketa eta energiaren jasangarritasunari dagokion udal barneko lantaldea sortu, 1/2024 Legeak jasotzen duen udal batzordearen funtzioak izan ditzan (Altua).
- 6.1.2. Urtero Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Efektuko Gasen isurpenen kalkulua egitea, energia eta klima-aldaketaren ekintza-planaren ezarpenetik aurrera isurpenen murrizketa gertatzen den behatzeko eta dagozkion neurriak aplikatzeko (Ertaina).
- 6.1.3. Klima eta energiaren ekintza-planaren urteko ebaluazioa ahalbidetu eta bertako ondorioetatik abiatuz urte batetik besterako jardueren programazioa landu (Baxua).
- 6.1.4. Ingurumenaren arloko fiskalitatean sakondu, energia-trantsizioan, natur baliabideen erabilera arduratsuan eta hondakinen murrizketa sustatu daitezkeen neurri fiskalak bultzatuz (Baxua).
- 6.1.5. Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari eta klima-aldaketaren arloko udal eskumenekin zerikusia duen prestakuntza-saioak eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei (Baxua).
- 6.1.6. Udal aurrekontuetan energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren ikuspegia barneratzeko lanketa abiaraztea, bereziki aurrekontuen diseinu fasean horietan eragin positiboa duten jarduerak identifikatzeko eta potentziatzen laguntzeko (Ertaina).

6.2 PROGRAMA: HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU

- 6.2.1. Herritar guztiek energia trantsizioa eta klima-aldaketaren gainean duten ezagutza areagotzeko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatu (Ertaina).
- 6.2.2. Udalaren izaera eredugarria bultzatzeko asmoz, udal energia eta klima-aldaketaren planaren inguruko garapenaren berri aldiro ematea (Baxua)

- 6.2.3. Fiskalitate berdean indarrean dauden hobari fiskalen inguruko informazioa sektore ezberdinen eskura jarri, komunikaziorako bide ezberdinak erabiliz (Baxua)
- 6.2.4. Etxebizitza-eraikinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatzen eta energia berriztagarrien ezarpena bultzatzen duten neurrien berri ematea (Baxua).

6.3 PROGRAMA: HERRITARRAK AKTIBATZEKO PARTE-HARTZE BIDEAK AZTERTU ETA HORIEK SUSTATU

- 6.3.1. Parte-hartze mekanismo ezberdinetan klima-aldaketaren aldagaia txertatzeko bideak aztertu eta eragile ezberdinek udalarekin batera halako politikak definitzeko bideak ezarri (Baxua).



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025PLAN0030-PLANA/PLANA (AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA - AZPEITIKO UDALA)